

I. ERANSKINA

ONURAGARRIA IZAN DAITEZKEEN ESTABLEZIMENDUEN EDO ENPRESEN MOTA

- a) **Bitartekaritzako turismo-enpresak.** Turismoaren arloko aholkularitza-, bitartekaritza- eta anto- laketa-zerbitzuak profesionaltasunez eta ohikotasunez ematen dituztenak dira, betiere jarduera garatzeko eskakizun formalak betez. Beren baliabide propioak erabil ditzakete jarduera horiek egi- teko. Honako hauek hartzen dira bitartekaritzako turismo-enpresatzat: bidaia-agentziak; empresa elkartuen turismo-eskaintzen merkaturatze komuna egitea helburu duten turismo-enpresen elkar- teak; erreserben zentralak, bitartekari turistikoak eta bidaia-agentzia handizkariak.
- Zehazki, atal honen xede dira Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN) «N» sekzioan bildutako jarduerak:
- EJSN TALDEA 791: Bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
 - EJSN MOTA 7911: Bidaia-agentzien jarduerak.
 - EJSN MOTA 7912: Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
 - EJSN TALDEA 799: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.
 - EJSN MOTA 7990: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.
- b) **Garraio turistikoko enpresak.** Pertsonak lekualdatzeko azpiegitura eta ekipamendu-ondasunak edukita, nagusiki ibilbide turistikoak egiten dituzten enpresak Bilbo barruan interesekoak diren baliabide edota tokietan. Garraio turistikoko jarduera nagusitzat hartuko da erregulartasunez eskaintzen dena eta enpresa-jardueran negozio-bolumen handiena sortzen duena.
- c) **Turismo aktiboko enpresak.** Lehia-asmorik gabeko aisia-, kirol- eta abentura-jarduera turistikoak prezio baten truke modu jarraituan eta profesionalean eskaintzen dituztenak. Jarduerok egiteko, egiten diren lekuan bertan (airean, lur gainean edo uretan) naturak eskaintzen dituen baliabideak bakarrik erabiltzen dituzte, jarduerotan beti izaten da arriskua, eta beharrezkoa da neurri batean trebatuta egotea. Kanpoan geratzen dira kirol-federazioak, -klubak eta -elkartek, nahiz eta halako jarduerak gauzatu.
- d) **Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak.** Biltzarrak, azokak, konbentzioak eta antzeko ekitaldiak egiteko aholkularitza-, plangintza-, antolaketa-, zuzendaritza- eta kontrol-zer- bitzuak eskaintzen dituzten enpresa espezializatuak, edo dena delako kongresuak profesionalki eskatzen duen zernahi beste jardueratan aritzen direnak; izan litezke zuzenean eginak edo hiru- garren pertsoneri edo elkarteei azpikontratatuak.
- Zehazki, erregulazio honen xede dira Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko «N» sekzioan bildutako jarduerak:
- EJSN TALDEA 823: Batzarren eta erakustazoken antolaketa.
 - EJSN MOTA 8230: Batzarren eta erakustazoken antolaketa.
- e) **Turismo-gidak.** Jarduera eta zerbitzu turistikoak erabiltzaileentzat informazio- eta interpretazio-lana egiten duten pertsonak, Bilboko interes kulturalako ondasun eta gainerako baliabide turistikoak ondare historiko, natural eta gastronomikoarekin loturik. Zerbitzu horiek ohikotasunez, profesionaltasunez eta prezio bidez ematen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta atzerriko beste edozein hizkuntzatan. Definizio horretan pertsona juridikoak ere sartzen dira.
- EJSN TALDEA 791: Bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.
 - EJSN MOTA 7912: Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak.

- EJSN TALDEA 799: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.
- EJSN MOTA 7990: Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta haiekin loturiko jarduerak.

Horrezaz gainera, pertsona fisikoek ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) epigrafe hae- tan sartuta egon beharko dute.

ATALA: 2

DIBISIOA: 8

ELKARTEA: 88

TALDEAK: 882 Turismo-gidak 883 Turismoko interprete-gidak.